

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Enpresa guztiak bezala oso beharrezkoa da funtzesko baliabideak izatea. Gure enpresak behar dituen baliabideak hurrengo hauek izango dira: Aurrenik, denda fisikoa behar dugu, eskeiniko ditugun produktuak han izateko eta gure bezeroei zerbitzatzeko behar dugu denda fisikoa izatea. Gure denda fisikoa ordutegi finko bat dauka, normalean jendea asteburuetan joango da eta horregatik asteburu osoa egongo da irekita. Astearteetan denda itxita egongo da baina email-aren bitartez gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute. Hau da gure ordutegia:


Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
10:00-19:00	Email	10:00-19:00	10:00-19:00	09:00-20:30	09:00-20:30	09:00-20:30

Bizikletak eta patineteak behar ditugu, gure bezeroak erabiltzeko eta gure hornitzailea Orbea izango da, bizikleta Orbea markakoak izatea prestigioa emango dio gure enpresari eta hori bezeroak erakarriko ditu, gehien bat, Euskal Herriko jendea gehiago ezagutuko dutelako Orbea marka. Baita ere, beharrezkoa dugu kargatzeko bateria gure bizikleta elektrikoentzat.

Gure bezeroei termino hoberenak eskeintzeko segurtasun elementuak eskeiniko dizkiegu; kaskoa, umeentzako eserlekua eta umeentzako kaskoa, eta beste zerbait behar baldin badute uzteko prest gaude.

Bezeroei atenditzeko gidak izango ditugu, gidak soldatapekoak izango dira eta gida batzuk hiriaren barruan lan egingo dute, aldiz, besteak, mendian egingo dute lan, gure gidak hizkuntza desberdinak jakingo dituzte. Hizkuntzen artean egongo dira, euskara eta gaztelania hizkuntza nabarmen bezala baina baita ere jakingo dute ingelera eta frantsesa, honekin bezeroekin tratua hobea izatea bilatzen dugu. Hasieran gidei lana errazteko gure laguntza izango dute, eta gure enpresak nola lan egiten duen erakutsiko diegu gure gidei. Baina noski oso kualifikatuak egongo dira eta aurreko guztia beteko dute.

Lehen aipatu dudak bezala bi ibilbide moduko eskeiniko ditugu, bat zentratuko da mendian eta bere inguruan, ibilbide honera etorriko dira Hondarribiko mendia ezagutu nahi duten pertsonak, baina baita ere mendia ezagutua izan arren mendia gustoko duten bezeroentzat dago zentratuta, ibilbide hau eginez kriston bistak ikusteko aukera izango dute eta itsasoaren presentzia ere nabarmenduko da.



Aldiz, beste ibilbidea hiria ezagutzeko baliagarria izango da, familian egiteko agian egokiagoa eta lasaiagoa. Adibidez alde zaharra ezagutzeko edo hondartza ikusteko oso esperientzia egokia da. Bezero gehienak udan izango ditugu, urtean zehar euria dagoenez zailagoa da jendea animatzea, baina denboraldiak errespetatzen badu edozein urtaro egokia da esperientzia honetarako.



Lehen aipatu dudan bezala derrigorrezkoa izango da segurtasun elementuak jartzea, garrantzitsusena kaskoa da, buru bakoitzari dagokion kaskoa emango diegu, burua babestu behar den lehenengoa da, horrela gero eta istripu gutxien egon dadila gure ibilbideetan. Eta umeak eraman eskero, umeak modu seguru batean lotuta egotea eta kaskoa eramanez horrela sustorik ez egoteko.